



aisa

**AURKIBIDEA****1. Sarrera**

- 1. Irakaslearentzako oharrak ..... 2
- 2. Ikastunitatearen ibilbidea ..... 3
- 3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak ..... 4

**2. Atazak**

- A Ataza:** Sukaldaritza-ikastaroa ..... 5
- B Ataza:** Zenbat urte dituzu? ..... 7
- C Ataza:** Juliana izen ematen ..... 8
- D Ataza:** Juliana udaletxean ..... 9

**3. Eranskinak**

- 1. Bideo-pasarteak ..... 10

**4. Material osagarriak**

- B Ataza:** Zenbat urte dituzu?
  - 1. Telefono gidako zenbakiak ..... 14

# 1. Sarrera

Ikastunitate honetan ikasleek Juliana ezagutuko dute. Juliana Ekuadorrekoa bada ere, orain Euskal Herrian bizi da. Lagun asko egin ditu hemen, eta horietako batzuekin euskaraz hitz egiten du. Juliana Zarautzen bizi eta bertan erroldatu da. Sukaldaritza-ikastaro batean eman du izena, hemengo sukaldaritza izugarri gustatzen zaiolako.

## 1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Lehenik eta behin esan behar da *BAI HORIXE!* metodoaz baliatuko garela ataza gehienetan, ikasleek oinarrizko elkarrizketak ikusi eta uler ditzaten.

**A atazan**, nor bere burua aurkezten ikasiko dute ikasleek, ahalik eta modurik errazena erabiliz. Aldi berean, oinarrizko elkarrizketa horietako ohiko galderak ulertzen saiatuko dira.

Zenbakiak egingo dute topo **B atazan**: nor bere adina adierazten ikasteaz gain, zenbakiak idazten ikasteko aukera ere izango dute.


**C atazan**, inprimaki bat betetzen saiatuko dira. Izan ere, izena emateko elkarrizketa entzun ondoren, izena emate-inprimakia betetzea izango dute eginkizun.

Aurrekoan bezala, **D atazan** ere erronka bera izango dute: beste inprimaki bat bete beharra, alegia. Oraingoan, ordea, errolda-inprimakia da. Udaletxeko erroldatze-sistema ezagutu eta gero, eredu erreala betetzeko ahaleginak egingo dituzte.

Laburbilduz, ikastunitatearen hasieran entzun eta mintzatu egin behar dute pitin bat, eta hurrengo atazetan irakurri eta idatzi beste pitin bat.

## 2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

### OSAGARRIAK



### 3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

#### HELBURU NAGUSIA

- Nork bere buruaren oinarrizko aurkezpena egitea eta besteena ulertzea

#### LEXIKOA

- Abizen, adin, auto, baina, boligrafo, deitura, etxe, egoiliar-txartel, emakume, errolda, eskerrik asko, gero arte, gizon, haur, helbide, herrialde, herri, idazkari, ikasle, ikastaro, irakasle, izen, kaixo, kalea, liburu, mahai, mutil, NAN, nazionalitate, neska, non, nongo, ongi, ondo, pasaporte, sukaldaritza-eskola, udal, urte, zenbat, zenbakiak (0-100), zer moduz ...

#### MINTZAGAIAK

- Ikaskide eta lagun berriak (A)
- Zenbakiak (B)
- Erroldarako eta izena emateko inprimakiak (D)

#### ELKARRERAGINA

- Entzundako elkarrizketak antzeztea (A)
- Betetako fitxa komentatzea (D)

#### KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Nork bere buruaren aurkezpena egitea (A)
- Ezagutu berrien arteko elkarrizketaren logika ulertzea (A)
- Aurkezpenetako ohiko galderak ulertzea (A)
- Nork bere adina adieraztea (B)
- Izena emateko inprimakia betetzea (C)
- Errolda betetzea (D)

#### GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- *"Ni + ...koa + naiz"* eta *"...-(e)n bizi naiz"* egiturak erabiltzea (A)
- *"Nik + zenbakia + urte ditut"* egitura erabiltzea (B)
- Otik 100era bitarteko zenbakiak ezagutzea (B)

#### EUSKAL KULTURA/GIZARTEA

- Hainbat euskal herriren izenak (A)

## 2. Atazak

### A ATAZA: SUKALDARITZA-IKASTAROA

65'

#### Helburu nagusia:

- Nork bere buruaren aurkezpena egitea eta bestearena ulertzea.
- Aurkezpenetan erabiltzen diren ohiko galderak ulertzea eta hainbat esaldi ikastea.

#### Helburuak:

- Unitateko pertsonaiak ezagutzea: sukaldaritza-ikastaroko partaideen izenak, jatorriak eta bizilekuak ezagutzea.
- "Ni +.....koa + naiz" eta "...-(e)n bizi naiz" egiturak erabiliz, aurkezpena osatzea.
- Ezagutu berrien arteko elkarrizketaren logika ulertzea.
- Galderak dagokien erantzunarekin lotzea.
- Aurkezpenetako ohiko galderak ezagutzea.

#### Zertan den:

- Ikasleek ikastunitatean zehar azalduko diren pertsonaiak ezagutuko dituzte eta elkar ezagutu berrien arteko ohiko elkarrizketa bat entzungo dute. Nork bere buruaz hitz egiteko, gutxieneko esaldiak erabiltzen ikasiko dute.

### PROZEDURA:

1

#### Atazaurrea: entzundako informazioa azpimarratu

- Ikasleei egoeraren berri emango diegu: Juliana Ekuadorretik etorri zen 1997an. Orain Zarautzen bizi da eta gaur sukaldaritza-ikastaroko lehen klasera joan da. Bertan, ikaskide berriak eta irakaslea ezagutzeko aukera izango du. (5')
- Ikasleek euren liburuko argazkiak ikusi eta izen-abizenak irakurriko dituzte. Aldi berean, esaiezu pertsonaia horiek sukaldaritza-ikastaroko partaideak direla. Ondoren, pertsonaien aurkezpenak azaltzen dituen entzute-gaia (1. bideo-pasartea) jarriko diegu eta, entzuten duten bitartean, pertsonaia bakoitza (Miren, Amaia eta Beñat) nongoa den eta non bizi den azpimarratu beharko dute. (Lehenengo hiru pertsonaien datuak osatuta daude.) (10')
- Bigarren entzunaldian konprobatuko dute azpimarratutakoa. (5')

#### Zuzenketa-orria

Miren Olabarria Gomez	Amaia Zulaika Gartzia	Beñat Lasa Murua
Gernikakoa	Baionakoa	Gasteizkoa
Donostian	Hendaian	Elgoibarren

#### Ataza: irakurritako elkarrizketa ordenatu

- Azaldu ikasleei euren liburuan dituzten argazkien egoera: ikastaroko partaideak (Beñat eta Juliana, Miren eta Joseba) sukaldaritza-eskolako kafetegian daude, atsedenean, eta elkarrekin hitz egiten ari dira. (2')
- Ikasleek liburuan osatu gabeko bi elkarrizketa dituzte. Eginkizuna, beraz, hutsuneak betetzea da. (10')

### Azalpena

- Ikasleek, binaka, elkarrizketak antzeztuko dituzte. (8')

### Feedbacka

- Elkarrizketak (2. bideo-pasarte) entzungo dituzte eta beraiek osatutakoekin alderatuko dituzte. (10')

#### Zuzenketa-orria

**Beñat:** Orduan, Ekuadorrekoa zara, ezta?

**Juliana:** Bai, baina orain Zarautzen bizi naiz.

**Juliana:** Eta zu, non bizi zara?

**Beñat:** Ni Eibarren bizi naiz.

**Beñat:** zenbat urte dituzu?

**Juliana:** 24 urte ditut. Eta zuk?

**Beñat:** Nik 25.

**Miren:** Eta Zumaian bizi zara, orduan?

**Joseba:** Bai, Iruñekoa naiz, baina Zumaian bizi naiz. Eta zu?

**Miren:** Ni Donostian bizi naiz, baina Gernikakoa naiz. Zenbat urte dituzu?

**Joseba:** 39. Zuk?

**Miren:** 53 urte ditut.

### Atazostea

- Ikasleek 3. bideo-pasarte<sup>1</sup> ikusiko dute eta bertan azaltzen diren pertsonaien izena, jaioterria eta bizilekua jasoko dituzte liburuko koadroan. (15')

#### Zuzenketa-orria

	neska	mutila
izena	Klara	Enrike
jaioterria	Donostia	Beasain
bizilekua	Elgoibar	Donostia

<sup>1</sup> Lagun berriak. *BAI HORIXE!*

### Helburu nagusia:

- Adina adieraztea eta galdera sinpleak ulertzea.

### Helburuak:

- “*Nik + zenbakia + urte ditut*” egitura erabiliz adina adieraztea.
- Oti 100era bitarteko zenbakiak ezagutzea.

### Zertan den:

- Ikasleek adina esaten eta besteena galdetzen ikasteaz gain, adina adierazteko zenbakiak ere ezagutuko dituzte.

## PROZEDURA:

### 1

#### Atazaurrea

- Ikasle bakoitzak bere hizkuntzan Oti 10era bitarteko zenbakiak idatziko ditu. Ondoren, ikaskideen aurrean irakurriko ditu; hartara, hizkuntza bakoitzaren berezitasunak ikusteko aukera izango dute. **(10')**
- Oti-10era bitarteko zenbakiak ozenki irakurriko dituzu, ikasleek, txandaka, errepika ditzaten. Jarraian, **4. bideo-pasartean**<sup>2</sup> 20, 30, 40... nola esaten diren entzungo dute ikasleek. **(10')**  
**Oharra:** Bideoan “larogei” hitza agertzen da idatzita, oso zaharra baita.
- Bitarteko zenbakiak nola osatzen diren azalduko diezu: hogeita bat, bi, hiru... **(10')**

#### Ataza: zenbakien taularen laguntzaz nork bere adina osatu.

- Ikasle bakoitzak bere adina idatziko du zenbakiz papertxo batean. Irakasleak papertxo guztiak bildu eta nahastutakoan, ikasleek papertxo bana hartuko dute eta zenbakia ozenki irakurriko, zein ikaskideri dagokion esanez. **(10')**

#### Feedbacka

- Zure adina esango diezu ikasleei: “*zenbakia + urte ditut*”. Ondoren, ikasle bakoitzari “*Eta zuk, (izena), zenbat urte dituzu?*” galdetuko diozu, denek beren adina esan arte. **(10')**

#### IRAK. LIB. 4. 1.

#### IK. LIB. 4.4.

Zenbakiak lantzen jarraitu nahi izanez gero, ariketa bat dago *Telefono-gidako zenbakiak* izeneko atazan.

<sup>2</sup> Zenbakiak hamarnaka. *BAI HORIXE!*

## Helburuak:

- Izena emate-inprimakia betetzea.
- Entzundako elkarrizketan ematen diren datu pertsonalak jasotzea.

## Zertan den:

- Sukaldaritza-ikastaroan izena emateko elkarrizketa entzuteaz batera, Julianaren datu pertsonalak jasoko dituzte. Azkenik, izena emate-orria beteko dute euren datuekin.

## PROZEDURA:

### 1

#### Atazaurrea

- Ikasleek **5. bideo-pasartea**<sup>3</sup> ikusi eta elkarrizketa non gertatzen den esango dute. **(5')**

#### Ataza: entzundako datuekin izena emate-orria bete

- Ikasleek, Juliana eta sukaldaritza-eskolako idazkariaren arteko elkarrizketa<sup>4</sup> (**6. bideo-pasartea**) entzuten duten bitartean, liburuko argazkiei begiratuko diete, egoera hobeto ulertzeko. **(5')**
- Bigarren aldiz entzungo dute elkarrizketa, Julianaren izena emate-orria aurrean dutelarik. **(5')**
- Ikasleek liburuko orria beteko dute entzundako datuekin. **(5')**

#### Zuzenketa-orria

Pasaporte zenbakia	71 453 692
Herria	Zarautz
Nazionalitatea	Ekuador
Egoera zibila	Ez kongabea
Adina	24
Telefono zenbakia	943 83 41 67

#### Feedbacka

- Denon artean zuzenduko duzue. **(5')**

<sup>3</sup> Euskaltegian. *BAI HORIXE!*

<sup>4</sup> HABEK moldatutako grabazioa

### Helburuak:

- Errolda-inprimaki eredu erreala ezagutzea.
- Errolda betetzea.

### Zertan den:

- Udaletxeko erroldatze sistema ezagutu eta eredu erreala betetzen ikasiko dute.

## PROZEDURA:

### 1

#### Atazaurrea

- Ikasleei hainbat azalpen emango dizkiezu erroldatzearen inguruan, hala nola, udaletxean egiten dela, lanbide-ikastaroetarako laguntzak lortzeko komenigarria dela, lan-kontratuak egiteko ere bai... (5')
- Adierazi, baita ere, *egoiliar-txartela* hitza idazten bada ere, ahozko hizkeran *erresidentzia-txartela* erabiltzen dela. Eta, txartel hau eskuratzeko denbora izugarri luzatzen denez gero, bien bitartean pasaporte-zenbakia erabiltzen dela errolda inprimakia betetzeko. (5')
- Data nola osatzen den azalduko diezu: urtea/hilabetea/eguna hurrenkera, alegia. (5')
- Ikasleek liburuan duten Julianaren eredu errealarari begiratuko diote, beraiena betetzen hasi aurretik. (5')

#### Ataza: errolda-inprimakia bete

- Bakoitzak bere errolda-inprimakia beteko du. (5')

#### Feedbacka

- Ikasleak ondokoarekin komentatuko du bere errolda-fitxa. (5')

## 3. Eranskinak

### 1. BIDEO-PASARTEAK

#### A ATAZA: SUKALDARITZA-IKASTAROA

##### 1. BIDEO-PASARTEA

**Iraupena:** 00.01.07

Lehen eskola-eguna

Kaixo guztioi! Ongi etorri sukaldaritza-eskolara.  
Gaur lehen eskola-eguna da.  
Ni Imanol Etxeberria naiz, irakaslea.  
Donostiakoa, baina Hernanin bizi naiz.  
28 urte ditut.

Egun on! Ni Juliana Serrano naiz eta Ekuadorrekoa naiz.  
— Ekuadorrekoa? (IRAKASLEA)  
Bai, baina orain Zarautzen bizi naiz.  
24 urte ditut.

Aupa! Ni Joseba naiz, Joseba Esnal.  
Iruñekoa naiz, baina Zumaian bizi naiz emaztearekin.  
39 urte ditut.

Kaixo! Egun on! Ni Miren Olabarria naiz.  
Gernikakoa naiz. baina Donostian bizi naiz.  
53 urte ditut.

Kaixo! Ni Amaia Zulaika naiz.  
Baionakoa naiz, baina orain Hendaian bizi naiz.  
30 urte ditut.

Iepa! Ni Beñat Lasa naiz.  
Gasteizkoa naiz, baina orain Eibarren bizi naiz.  
25 urte ditut.

##### 2. BIDEO-PASARTEA

**Iraupena:** 00.00.33

Elkar ezagutzen

##### Beñat eta Juliana

BEÑAT	Orduan, Ekuadorrekoa zara, ezta?
JULIAN	Bai, baina orain Zarautzen bizi naiz.
JULIANA	Eta zu, non bizi zara?
BEÑAT	Ni Eibarren bizi naiz.
BEÑAT	Zenbat urte dituzu?
JULIANA	24 urte ditut. Eta zuk?
BEÑAT	Nik 25.

### Joseba eta Miren

MIREN        Eta Zumaian bizi zara, orduan?  
JOSEBA       Bai, Iruñekoa naiz, baina Zumaian bizi naiz. Eta zu?  
MIREN        Ni Donostian bizi naiz, baina Gernikakoa naiz. Zenbat urte dituzu?  
JOSEBA       39. Zuk?  
MIREN        53 urte ditut.

### 3. BIDEO-PASARTEA

**Iraupena:** 00.04.00

Lagun berriak. *BAI HORIXE!*

MUTILA        Aizu, sua?  
NESKA        Zer?  
MUTILA        Sua, mesedez.  
NESKA        A, bai, sua. Itxoin. Hartu.  
MUTILA        Eskerrik asko.  
MUTILA        Zer, nobela ala?  
NESKA        Bai, nobela da.  
MUTILA        Polita da?  
NESKA        Tira... interesgarria. Eta liburu hori?  
MUTILA        Hau? Hau ez da nobela. Liburu honetan txoriak daude. Begira.  
NESKA        Oso politak. Nongoak?  
MUTILA        Beasaingoa naiz.  
NESKA        Zu ez, txoriak. Nongoak dira?  
MUTILA        A! Euskal herrikoak eta kanpokoak.  
MUTILA        Eguraldi ederra. Mendia ere polita dago.  
NESKA        Hotza.  
MUTILA        Bai, hotza, hotza. Aizu...  
NESKA        Klara. Ni Klara naiz. Eta zu?  
MUTILA        Ni Enrike. Buelta bat?  
NESKA        Ederki.  
NESKA        Egun on!  
MUTILA        Kaixo!  
2. MUTILA    Bai, egun on!  
MUTILA        Hara!, hondartza. Ederra.  
NESKA        Bai, baina ura oraindik hotza dago.  
MUTILA        Begira, hor bizi naiz ni.  
NESKA        Alde Zaharrean? Non?  
MUTILA        Fermin Calbeton kalean.  
NESKA        Baina, zu Beasaingoa zara, ezta?  
MUTILA        Bai, baina Donostian bizi naiz. Eta zu, nongoa zara?  
NESKA        Hemengoa, Donostiakoa.  
MUTILA        Eta non bizi zara?  
NESKA        Orain Eibarren bizi naiz.  
MUTILA        Eibarren?  
NESKA        Bai... lana. Irakaslea naiz. Garagardo bat?  
MUTILA        Primeran.

## B ATAZA: ZENBAT URTE DITUZU?

### 4. BIDEO-PASARTEA

**Iraupena:** 00.01.00

Zenbakiak hamarnaka. *BAI HORIXE!*

## C ATAZA: JULIANA IZENA EMATEN

### 5. BIDEO-PASARTEA

**Iraupena:** 00.03.50

Euskaltegian. *BAI HORIXE!*

IDAZKARIA	Bai?
NESKA	Egun on! Zu zara idazkaria?
IDAZKARIA	Bai. Zer, matrikula?
MUTILA	Bai.
IDAZKARIA	Eseri, eseri. Zein maila?
MUTILA	Bi... bigarrena.
IDAZKARIA	Izena?
MUTILA	Karmelo.
IDAZKARIA	Deiturak?
MUTILA	Elizondo Martinez.
IDAZKARIA	Helbidea?
MUTILA	Kale Nagusia.
IDAZKARIA	Zenbakia?
MUTILA	Hiru.
IDAZKARIA	Herria?
MUTILA	Balmaseda.
IDAZKARIA	Bizkaia, ezta?
MUTILA	Bai.
IDAZKARIA	Ongi da. Zu ere bai?
NESKA	Bai, ni ere bai.
IDAZKARIA	Izena?
NESKA	Izaskun.
IDAZKARIA	Deiturak?
NESKA	Ruiz.
IDAZKARIA	Eta bigarrena?
NESKA	Sanchez.
IDAZKARIA	Helbidea?
NESKA	Caracas kalea, 2.
IDAZKARIA	Kaixo Xabier!
XABIER	Kaixo! Ikasle berriak?
IDAZKARIA	Bai, ikasle berriak. Irakaslea.
XABIER	Zer moduz?
NESKA	Ondo.
MUTILA	Ondo, eta zu?
XABIER	Ondo. Gero arte.
NESKA	Agur.
MUTILA	Bai, gero arte.
IDAZKARIA	Herria?
NESKA	Bilbo.
IDAZKARIA	Izena. Ongi.
NESKA	Agur eta eskerrik asko.
IDAZKARIA	Agur, bai.

## 6. BIDEO-PASARTEA

**Iraupena:** 00.01.00

Juliana izena ematen

JULIANA Arratsalde on! Sukaldaritza-ikastaroan izena eman nahi dut.  
IDAZKARIA Oso ondo. Zure datuak behar ditut.  
IDAZKARIA Izena?  
JULIANA Juliana.  
IDAZKARIA Eta abizenak?  
JULIANA Serrano Frías.  
IDAZKARIA Zure pasaporte zenbakia?  
JULIANA Bai, 52. 786. 341  
IDAZKARIA Eta, non bizi zara?  
JULIANA Zarautzen bizi naiz.  
IDAZKARIA Kalea?  
JULIANA Kale nagusia 5, 1. C  
IDAZKARIA Nongoa zara?  
JULIANA Ekuadorrekoa.  
IDAZKARIA Ezkonduta zaude?  
JULIANA Ez, ezkongabea naiz.  
IDAZKARIA Zenbat urte dituzu?  
JULIANA 24 urte ditut.  
IDAZKARIA Zure telefonoa?  
JULIANA 943 83 41 67  
IDAZKARIA Oso ondo, eskerrik asko. Ikastaroa asteartean hasiko da.  
JULIANA A!, ondo. Eskerrik asko eta agur.

## Material osagarriak

### 1. TELEFONO-GIDAKO ZENBAKIAK

## 7. BIDEO-PASARTEA

**Iraupena:** 00.00.33

Telefono-gida. *BAI HORIXE!*

PATXI Mendizabal ?  
MARTIN 42 15 60  
PATXI Mendoza  
MARTIN 27 36 21  
PATXI Mercader?  
MARTIN 46 63 23  
PATXI Merino  
MARTIN 86 23 41. Dentista.

## 4. Material osagarriak

### B ATAZA: ZENBAT URTE DITUZU?

#### 1. TELEFONO-GIDAKO ZENBAKIAK

15'

##### Helburuak:

- Telefono-gida erabiltzea.
- Nork bere lurraldeko berezitasunak komentatzea.
- Entzun ahala, izenak eta telefono-zenbakiak lotzea.

##### Zertan den:

- Ikasleek, hemengo telefono-gida ezagutu ondoren, euren herrialdekoak aipatuko dituzte: berdintasunak, aldeak...

##### PROZEDURA:

### 1

##### Atazaurrea

- Jarri **7. bideo-pasartea**<sup>5</sup> telefono-zenbakiak entzun ditzaten. Gero, azaldu nola erabili behar den telefono-gida bilaketak egiteko (aurrizkiak...) eta galdetu ikasleei euren lurraldeetako telefono-sistemaren berezitasunei buruz. **(5')**

**Oharra:** Esan ikasleei telefono-zenbakiak euskaraz banaka esatea komeni dela; bestela, bikoteak bukatu arte izen delako idatzi: berrogeita...

##### Ataza

- Beheko telefono zenbakiak irakurriko dituzu hurrenkera aldatuta, eta ikasleek nori dagokion esango dute ozenki. **(10')**

Arnaiz Ezkerra, S.	943 02 46 81
Arnedo Domezain, M.J.	943 65 13 00
Arostegi Etxeberria, J.	943 01 85 15
Arruabarrena Imaz, L.	943 89 67 24
Bakaikoa Uranga, M.	944 54 96 21
Bernal Gartzia, L.	944 21 60 14
Bilbao Iturria, P.	944 37 80 34
Elizalde Perez, I.	948 13 56 92
Fernandez Arrue, A.	948 36 37 56
Gaintza Iglesias, T.	948 37 21 69
Gago Agirre, J.J.	945 01 82 49
Intxausti Zaldibia, M.	945 67 32 32
Iztueta Altuna, M.A.	945 65 45 12

<sup>5</sup> Telefono-gida. *BAI HORIXE!*

## EGILEAK

Proiektuaren arduraduna: **Juxto Egaña** (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)  
Koordinatzaile didaktikoak: **Begoña Martinez** (HABEko teknikaria)  
**Sabin Zabala** (HABEko teknikaria)  
Partehartzaileak: **Ainhoa Gaintza** (Planiker)  
**Belen Benitez** (Planiker)  
Errealizazio didaktikoa: **Felix Sainz** (HABEko teknikaria)

HABE Erakundeak eskerrak ematen dizkio Planiker enpresari materialgintza-  
-proiektu honetan parte hartzeagatik.

Gure esker ona ondoren aipatzen diren hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman  
digutelako.

Aiala sukaldaritza-eskola

Euskaltegian. *BAI HORIXE!*

Lagun berriak. *BAI HORIXE!*

Telefono-gida. *BAI HORIXE!*

Zenbakiak hamarnaka. *BAI HORIXE!*